



# IBILBIDEA



# DATUAK

	Ur-emaria(cl/s)	Temperatura	pH	ztizo gogortasuna	karbono	Nitratoak	Nitritoak	Kloro	Oxigeno
URATSA	8,3	12	8	16	6	0	0	0	5
ALDAPE	25	10	7,2	6	6	0	0	0	8



# HISTORIA

## Galartzako bainuetxea

Galartzako bainuetxea Elorrioren zegoen, Durangaldean (Bizkaia). Beste bi izenekin ere ezaguna zen: Isasi-Olabazarreko bainuetxea edo Bainu zaharrak. XVIII. mende amaieran Galartzako iturburuko ura terapeutikotzat jotzen zen, ustez onak ziren-eta osatzeko zenbait gaixotasun: katarro kronikoak, erreumak, herpesak, erupzioak, baginitisa eta sifilia.

Garai batetik aurrera, jendeak "Bainu zaharrak" deitu zion bainuetxe horri, Elorrioren bertan beste bainuetxe bat eraiki zenetik batez ere, Beleringo bainuetxea, zeini jendeak esaten zion "Bainu berriak".

Domingo Isasik lehen etxetxea eraiki zuenetik Isasi-Olabazarreko sufre-ur iturburuaren ondoan, bertan jendeak bainuak har zitzen, Galartzako bainuetxeak zenbait eraberritze izan zituen, hari eta 1840an hiru solairuko eraikin luze bat egin zuen arte, estilo neoklasikokoa. 1877an berau zen Bizkaiko bainuetxeen artean jende gehien hartzen zuena.[1]

XIX. mende bukaeran gainbehera hasi zen, eta 1907an Aita Agustinoek erosi zuten. Gaur egun Lourdesko Ama ikastetxea dago Galartzako bainuetxea zegoen lekuan, eta bertan ikus daiteke oraindik orduko eraikina.

XIX. mendean Elorriok egoera egokia zuen erakartzeko inguruko eta urrutiko dirudun asko: kokapena, biztanleria, klima, paisajea, eta endemiarik ez. Are gehiago, burdin-ur iturriak eta bost sufre-ur iturburu: Santa Katalinakoa, Udalatx pean; Gurutze berria izenekoa, bailarako mendebalean; Teletxe edo Tolotokoa, Galartzako iturburutik 300 bat metrora; eta, amaitzeko, bi bainuetxeen oinarria izango diren biak, Isasi-Olabazar edo Galartzakoa eta Beleringoa.

Bainuetxeekin Elorriok Belle Epoque nolabaitekoa bizi izan zuen, batez ere XIX. mendeko azken herenean. Bainuen garaian ehunka bainulari iritsiko ziren diligentzietan lehenik eta trenez gero, gehienak dirudunak, eta hori diru-iturri garrantzitsu bihurtu zen herriarentzat.

### Hastapenak

XVIII. mende amaieran Galartzako iturburuko ura terapeutikotzat jotzen zen, ustez ona zen-eta osatzeko gaixotasun hauek: katarro kronikoak, erreumak, herpesak, erupzioak, baginitisa eta sifilisa. Hori ikusita, Domingo Isasik, berau iturburu zegoen inguruko lurren jabea, etxetxo bat eraiki zuen, bertan jendeak bainu terapeutikoak har zitzen. Geroago, barrakoiak jaso ziren hantxe bertan, helburu berarekin. 1840an, berriz, eraberritze handia egin zitzaion inguruari, eta gaur egun ezagutzen den forma hartu zuen.

XIX. mende bukaeran gainbehera hasi zen bainuetxea. 1905ean trenaren Elorriora ailegatzeak ez zuen gainbehera gelditu, eta 1907an Aita Agustinoek bainuetxea erosi, eta seminario bihurtu zuten, 1972a arte. Gaur egun Lourdesko Ama ikastetxea dago Galartzako bainuetxea zegoen lekuan.

### Ezaugarriak

1840an lan handiak egin ziren iturburuaren ondoan, eta haien emaitza izan zen eraikin paralelogramo bat, bebarrua zeukana, eta bi solairu gehiago. Hurrengo hamarraldietan eraberritze gehiago egin ziren eraikinean, beronek 180 bezero jasotzeko ahalmena izan arte. Ondorioz, 1877an Galartzakoa zen Bizkaiko bainuetxeen artean jende gehien hartzen zuena.

### Bezeroen jatorria

1880ko denboraldian leku hauetatik etorri ziren Bainuetxe zaharreko eta berriko bezeroak: Bizkaia: 373; Madril: 301; Gipuzkoa: 52; Araba: 17. Gainerakoak, hemendik: Santander, Toledo, Valladolid, Zaragoza, Andaluzia, Logroño, Paris, Londres... Guztira: 795 bezero. Horietatik Bainuetxe berrikoak (Belerin): 202; Bainuetxe zaharrekoak (Galarza): 593.

1889ko denboraldian hau izan zen bainuetxe bietako bezeroen jatorria. Madril: 317; Bizkaia: 315; Gipuzkoa: 85; Araba: 39... Guztira, 846 bainulari. Horietatik, Bainuetxe berrikoak (Belerin): 291; Bainuetxe zaharrekoak (Galarza): 555.[2]

Iñigo Agirre irakasleak laburbiltzen duenez, 1881-1907 epean 7.440 bezero etorri ziren Elorriora bainu terapeutikoak hartzera, aintzat hartzeko kopurua.[3]

### Ostatuak eta garraioak

Bainuetxearen hastapenetan, bainulariek herriko etxe partikularretan hartzen zuten ostatu. Horri esker, herritarrek aparteko diru sarrerak lortzen zituzten. Laster baina, ikusita bezeroen emaria hazi egiten zela, eta bainuetxeak ez zirela gauza bezero guztiei ostatu emateko, ostatuak agertu ziren herrian, bainulariak hartzeko. Horra hor zenbaiten izenak: Las Delicias, La Unión, Buenavista, Chamberí, Mallabi, Kitolis, eta El Vergarés. Geroago ireki ziren La Paz, Arroita eta Arrati.

Elorrioko dirudunek, berriz, Berriozabal, Urkizu, Ybargoitia, Urkijo, Gonzalez eta Modet familiak, besteak beste, euren jauregietan igaroten zuten uda.

Bainu-denboraldiak lau hilabete irauten zuen Elorrioren, ekainaren 1etik irailaren 30a arte. Epe horretan, hiru diligentzia irteten ziren egunero Bilbotik Elorriora, lehenengoa goizeko 07:00etan abiatuta. Bidean gurutzatzen ziren beste horrenbeste diligentziarekin, alderantzizko bidea egiten zutenak. Bidaiak lau bat ordu irauten zuen.[4]

1905ean, trenaren Elorriora iritsi zenean, diligentziak desagertu egin ziren, eta Bizkaiko bainulari asko trenez ailegatuko ziren Elorriora, nahiz eta ordurako bainuetxeen gainbehera hasita egon. Gainbehera

XX. mende hasieran areagotu egingo da Elorrioko bainuetxeen gainbehera. Galartzakoak 1907a arte iraun zuen bainuetxe moduan, urte hartan Aita Agustinoek hura erosi eta seminario bihurtu baitzuten.

Seminarioa 1972an itxi zen. Gaur egun Lourdesko Ama ikastetxea dago Galartzako bainuetxea.

## **Beleringo bainuetxea**

Beleringo bainuetxea Elorrión (Durangaldean, Bizkaia) zegoen bainuetxe bat zen. Bainu Berriak ere deitzen zitzaion. 1826an eraiki zen Juan Ramon Urkizuren lurretan, Kurutzeaga inguruan, aprobetxatuta Beleringo iturburua inguruan zegoela, bertan bainu terapeutikoak eskaintzeko, era hartako lehenbizikoak Bizkaian. Bertako bainuak estimatuak ziren, ustez onak ziren-eta osatzeko bronkioetako gaitzak, katarroak, artritis-moia eta gernu aparatukoak.

Garai batetik aurrera, jendeak "Bainu berriak" deitu zion bainuetxe honi, herrian bazeuden-eta lehendik beste batzuk, "Bainu zaharrak", alegia, Galartzako bainuetxea gaur egungo Lourdesko Ama ikastetxean. Hala ere, 1877a arte Beleringo bainuetxeak ez zuen edukiko eraikin dotorerik, lorategiz, ortuz eta galsoroz inguratuta. XIX. mende bukaeran gainbeheran hasi zen, eta 1936a arte iraun zuen.

Gaur egun Betsaide Fundizioak izeneko enpresa dago Beleringo bainuetxea zegoen lekuan, eta bertan ikus daiteke oraindik orduko eraikinaren zati bat, gaur egungo bulegoek hartzen dutena.

XIX. mendean Elorriok egoera egokia zuen erakartzeko inguruko eta urrutiko dirudun asko: kokapena, biztanleria, klima, paisajea, eta endemiarik ez. Are gehiago, burdin-ur iturriak eta bost sufre-ur iturburu: Santa Katalinakoa, Udalatx pean; Gurutze berria izenekoa, bailarako mendebalean; Teletxe edo Tolotokoa, Galarzako iturburutik 300 bat metrora; eta, amaitzeko, bi bainuetxeen oinarria izango diren biak, Isasi-Olabezar edo Galarzakoa eta Beleringoa.[2]

Bainuetxeekin Elorriok Belle Epoque nolabaitekoa bizi izan zuen, batez ere XIX. mendeko azken herenean. Bainuen garaian ehunka bainulari iritsiko ziren diligentzietan lehenik eta trenz gero, gehienak dirudunak, eta hori diru-iturri garrantzitsu bihurtu zen herriarentzat.

Hastapenak

1822 eta 1826 artean harremanak izan ziren Juan Ramon Urkizu, Beleringo iturburua dagoen lurren jabea, eta Elorrioko Udalaren artean, berau baitzen Kurutzeagako lurren jabea, lur haietan bainuetxe bat eraikitzeko, bertara Beleringo urak eramanda.

Jabeak

1826an salmenta-agiri batean agertu zen Beleringo bainuetxea, eta bertan Juan Ramon Urkizuk saldu egin zien herriko lau lagunak Beleringo bainuetxea, en la cantidad de dos mil setenta y seis reales de vellon.

1862an lau laguneko elkarte bat zen Beleringo bainuetxeko jabea, Bilbon bizi zirenak denborarik gehiena. 1868an, berriz, Sebastian Epalza zen bainuetxeko jabea.

Ezaugarriak

Jakina da 1861ean Beleringo bainuetxeak solairu bakarra zeukala. Hala ere, zenbait eraberritzeren ostean, 1877an bi solairu zeuzkan 80 lagunentzako lekuarekin, eta 70 metroko galeria bat atzeko aldean.

1879rako hiru solairuko eraikin bat eta bebarrua zeuzkan. Galeria berria erantsi zitzaion, gehitu egin ziren bainuontziak, hamabi edukitzeraino, bideratu egin ziren urak iturriraino... 1885ean erre egin zen. Handi hiru urtera, 1888an, berriro ireki zen, erabat berriztuta.

Bezeroen jatorria

1880ko denboraldian leku hauetatik etorri ziren Bainuetxe zaharreko eta berriko bezeroak: Bizkaia: 373; Madril: 301; Gipuzkoa: 52; Araba: 17. Gainerakoak, hemendik: Santander, Toledo, Valladolid, Zaragoza, Andaluzia, Logroño, Paris, Londres... Guztira: 795 bezero. Horietatik Bainuetxe berrikoak (Belerin): 202; Bainuetxe zaharrekoak (Galarza): 593.

1889ko denboraldian hau izan zen bainuetxe bietako bezeroen jatorria. Madril: 317; Bizkaia: 315; Gipuzkoa: 85; Araba: 39... Guztira, 846 bainulari. Horietatik, Bainuetxe berrikoak (Belerin): 291; Bainuetxe zaharrekoak (Galarza): 555.[3]

Iñigo Agirre irakasleak laburbiltzen duenez, 1881-1907 epean 7.440 bezero etorri ziren Elorriora bainu terapeutikoak hartzera, aintzat hartzeko kopurua.[4]

Ostatuak eta garraiobideak

Bainuetxearen hastapenetan, bainulariek herriko etxe partikularretan hartzen zuten ostatu. Horri esker, herritarrek aparteko diru sarrerak lortzen zituzten. Laster baina, ikusita bezeroen emaria hazi egiten zela, eta bainuetxeak ez zirela gauza bezero guztiei ostatu emateko, ostatuak agertu ziren herrian, bainulariak hartzeko. Horra hor zenbaiten izenak: Las Delicias, La Unión, Buenavista, Chamberí, Mallabi, Kitolis, eta El Vergarés. Geroago ireki ziren La Paz, Arroita eta Arrati.

Elorrioko dirudunek, berriz, Berriozabal, Urkizu, Ybargoitia, Urkijo, Gonzalez eta Modet familiak, besteak beste, euren jauregietan igaroten zuten uda.

Bainu-denboraldiak lau hilabete irauten zuen Elorrión, ekainaren 1etik irailaren 30a arte. Epe horretan, hiru diligentzia irteten ziren egunero Bilbotik Elorriora, lehenengoa goizeko 07:00etan abiatuta. Bidean gurutzatzen ziren beste horrenbeste diligentziarekin, alderantzizko bidea egiten zutenak. Bidaiak lau bat ordu irauten zuen.[5]

1905ean, trena Elorriora iritsi zenean, diligentziak desagertu egin ziren, eta Bizkaiko bainulari asko trenz ailegatuko ziren Elorriora, nahiz eta ordurako bainuetxeen gainbehera hasita egon. Gainbehera

XX. mende hasieran areagotu egingo da Elorrioko bainuetxeen gainbehera. Beleringoak 1936a arte iraun zuen. Hain zuzen ere, bainuetxe honi buruzko azken erreferentzia 1936koa da, eta bertan milizianoek "gonbidatu zuten [bainuetxea] hustutzera" bi orduko epean.

Gaur egun, berriz, Betsaide S.A.L. enpresa dago orduko bainuetxearen lekuan.

<b>INTERPRETAZIOA</b>								
-----------------------	--	--	--	--	--	--	--	--

Grafikoetan lorturiko datuak ikusirik honako ondorioetara iritsi gara:

Bi iturubuetan lortutako datuak ez dira berdinak izan, azterturiko zenbait ezaugarrietan.

Uratsako urak usain berezia (arraultz ustel usaina) izateaz gain, beste hainbait ezaugarrietan balio desberdinak eman ditu, Aldapeko iturburuko urarekin alderaturik.

Usainaz gain, Uratsako urak guztizko gogortasun eta karbonatotan gogortasunean ere balio desberdinak ematen ditu, Aldapeko uretan lortutakoaren aldean nahikotxo altuagoak.

Beste zenbait ezaugarritan aldiz, ez dago alde handirik: pH berdintsua, tenperatura berdintsua eta gardentasunean ere alde askorik ez.

--	--	--	--	--	--	--	--	--

Hori guztia kontuan izanik, argi dago iturburu hauetatik datozen urek jatorri desberdina dutela, eta bere gainazalerako bidean, arroka mota desberdinak zeharkatu dituztela, eta hauetatik jaso izan dituztela disolbaturik daramatzaten substantziak.